

Antxiñako fotografixia



Zubillagarrak Errosarixoko Bixamonian

Orain Errosarixoko Bixamonian kuadrillak mozorroketia gauzarik normalena izan arren, ezta beti hola suertau Oñatin. Gerra osteko urte latzetan ez eguen hartarako erarik, dirurik eta samurtasunik. Hala eta guztiz be, etzan umorerik falta eta noizian behin kuadrilla batzuk moldaiten ziran egun horretan taldian kaleraketako.

Lehenenguetako bat zubillagarrak asmau euen 1955. urtian. Garai haretan gazterixa potentia eguen Zubillagan eta, kalera etorten ziranian, berihela igarten zan eurak jarten euen animaziñua. Gau-txori samarrak ziralako-edo, *Gauerdì* izena iffñi otzain euren kudrillio-ri. Eta orain dala 49 urteko jaixetan han agertu ziran 27 mutil gazte, uniformauta, bixera eta elastiko zuri, fraka urdin eta alpargata zintadunekin.

Baiña bazan beste detailleto bat be: mutil bakoitzak letra haundi bana eukan bizkarran; eta bihar zan ordenan jarri ezkerro, ondorengo esaldixa irakurri zeikien: *El Gauerdì noche y día de romería*. Erderaz, jakiña, frankismuak oraindiok bere onenian irauten eben-eta. Nahiz eta gazte gehixenak Zubillagakuak izan, banaka batzuk Madalena auzokuak ziran, baiña zubillagarrekin ebizenak. Soiñujolia, berriz, Gatzagakua, despedideta-eta, Zubillagara sarritan etorten zana. Itturri-puntatik hasitta barrenerañio, eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue Zarateko etxe aurrian agiri diran mutillok:

Goixenejan: Iñaxio **Iñurritegi**, *Zugastuikua*.

Bigarren ilaran, itturriko andriaren alde banatan: Joxe Mari **Murguzur**; eta Luis **Iarza**.

Beheratxuago ezkerretara: Martin **Murua**, *Antuen Txikikua*.

Hirugarren ilaran: Pedro **Iñurritegi**, *Zugastuikua*; Ion **Agiriano**, *Errementerikua*; Pedro **Murguzur**; eta Andres **Agiriano**, *Errementerikua*.

Laugarren ilaran: Doroteo **Igartua**, *Zubiaurrekua*; Joxe **Gorrotxategi**, *Zelaieta Txikikua*; Iñaki **Lazkanoiturburu**, *Arotzenekua*; Soiñujolia, Zubillagan "*Kaparras*" ezizenez ezauketan euena, *Gatzagakua*; Joxe **Iturbe**, *Txanboliñena*; Jexus **Gorrotxategi**, *Zelaieta Txikikua*; Antonio **Iturbe**; *Txanboliñena*; eta Sebastian **Aiastui**, *Farretzekua*.

Bosgarren ilaran, makurtuta: Bittoriano **Arruabarrena**, *Bizkaiko Atxondokua*, *Gordoanian* (Zelaieta) morroi euguena; Andres **Aiastui**, *Farretzekua*; Luis **Arza**; eta Andres **Agirre**, *Pardioskua*.

Beheko ilaran, lurrian jarritta: Xipri **Aiastui**, *Farretzekua*; Luis **Korta**, *Zubillaga-azpiko Haundikua*; Migel **Kortabarria**, *Matromaikua*; Julian **Arza**, *Zubillaga-azpiko Txikikua*; Migel **Alzelai**, *Urtzaillekua*; Jabier **Murguzur**; eta Pedro Mari **Korta**, *Zubillaga-azpiko Haundikua*.

J. E.

Fotografixia Patxi Elorza Oñatiko erretratista ezagunak atara eben. Guri Iñaxio Iñurritegik itxi dosku eta argibidiak Iñaxio berak eta Joxe Mari Murguzurrek eskuratu doskue. Eskerrik asko bixoi!

Fan dan hillabeteko argazkizan (Zañartuko eskolakuan) agertu ziran hutsuna eta akats txiki batzuk zuzenketako moduan gagoz. Hirugarren ilarako bigarren neskatilla ezta *Albarritzako* Juanita Urzelai, Juanita **Lizarralde** baiño; ilara berian monjiaren ezkerretara dagozen bi umetxuak *Mugartza Haundiko* Rosario eta Felisa **Mugarza** ahizpak dira; eta bigarren ilaran ezezaguntzat jotzen gittuan bi neskatillen izenik ez, baiña sasue haretan non egozen enterau gara; lehenengua *Jardinguan* umezain, eta bigarrena, araoztarra, *Mugartza Haundikuan*, baserri horretakuekin senide egiten zalako-edo. Argibidiok Genobeba Zelaieta, Elena Egaña eta Jaione Igartuak emun doskue. Milla esker!